



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Garraio Partzuergoa

«Barik txartela eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren garraio-titulu komunak araupetzen dituen Ordenantza»-ren aldatzeko hasierako onespenaren iragarkia.

«Barik txartela eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren garraio-titulu komunak araupetzen dituen Ordenantza»-ren aldatzeko hasierako onespena, 2025eko maiatzaren 22ko 96. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, espedientea jendaurrean egon da hogeita hamar (30) eguneko epean eta epe horretan ez da behin-behineko onarpenaren aurkako erreklamaziorik aurkeztu, eta beraz, behin betiko bihurtzen da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, aldaketaren testu osoa argitaratzen da, eta argitaratzen denetik 15 egun baliodun igaro ondoren jarriko da indarrean.

Bilbon, 2025eko uztailaren 4an.—Zuzendari Nagusia, Roberto Muñoz García

**BARIK TXARTELA ETA BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN
GARRAIO-TITULU KOMUNAK ARAUPETZEN DITUEN ORDENANTZA****2. artikulua. — *Arautzearen eremu subjektiboa***

Ordenantza hau Barik txartelaren eta BGPren bidaia-tituluen erabiltzaile guztiek bete beharko dute, baita beste lurralde historiko batzuetako txartel gonbidatuak dituzten erabiltzaileek ere, horiek eragingarriak badira.

Aurrekoa gorabehera, Horretara loturik baina bidaia-txartela aldean eroan beharrik ez dabe izango BFAn desgaitasuneta mendekotasun-egoerearen autortzea daukien pertsonen laguntzaileek, beti be lagundutakoek baldintza honek beteten baditue:

- a) %45eko edo hortik gorako desgaitasun-mailea, eta
- b) Autortutako mendekotasun-mailea (I, II edo III).

Baldintza biak bete behar dira.

Salbuetsita geratu ahal izateko, eskaerea berariaz egin behar da. Eskaera Bizkaiko garraio publikoko Bezeroarentzako Arreta Bulego integraletan (BAB) aurkeztu beharko da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoa betez, zeinak xedatzen baitu interesdunek esku-bidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko, Bizkaiko Garraio Partzuergoak, interesdunak aurka egin ezean, elektronikoki kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu eskaera kudeatzeko beharrezkoak diren datuak eta dokumentuak, datuen bitartekaritza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuen bidez, eta, bereziki, % 45eko edo gehiagoko desgaitasun-maila eta aitortutako mendekotasun-maila (I. II. edo III. maila) aitortzeari buruzko betekizuna betetzen dela egiaztatzeko.